**Convocatoria subvenciones proyectos de cooperación**

La Junta de Gobierno del Ayuntamiento de Berriozar, en sesión celebrada el día febrero 2017, aprobó la convocatoria pública de subvenciones para la realización de proyectos de cooperación con países en vías de desarrollo para el año 2016, que se transcribe a continuación:

BASES DE LA CONVOCATORIA PÚBLICA DE SUBVENCIONES PARA LA REALIZACIÓN DE PROYECTOS DE COOPERACIÓN CON PAÍSES EMPOBRECIDOS. AÑO 2017/2018

**1.-Preámbulo.**

El Ayuntamiento de Berriozar es consciente de la necesidad de promover una solidaridad eficiente con los países con menor índice de desarrollo humano, para avanzar en la disminución de las injusticias y en el cumplimiento de los Objetivos de Desarrollo del Milenio, así como de tomar medidas concretas que lleven a la erradicación de la pobreza y la exclusión.

El Ayuntamiento de Berriozar tiene establecido para los años 2017/2018 una partida global para subvencionar programas de Cooperación al Desarrollo de 43.000,00 euros. De este importe se destina el 62,8% a subvencionar Proyectos de Cooperación al Desarrollo (27.000 euros) el 23,25% a Hermanamiento con Sáhara (10.000 euros), el 2,33% para acciones de sensibilización (1.000 euros) y 11,62% Ayudas de Emergencia (5.000 euros).

En caso de desaparecer o reducirse económicamente algunos de los compromisos señalados, se podrá trasladar la cantidad económica no utilizada a los restantes conceptos de ésta línea presupuestaria o viceversa. Este hecho pretende que no quede ningún recurso comprometido por el Ayuntamiento de Berriozar, sin utilizar, entendiendo que la necesidad en Cooperación es importante.

**Lankidetza proiektuetarako diru-laguntzen deialdia.**

Berriozarko Udalaren Gobernu Batzordeak, 2017ko otsailean egindako bilkuran, diru-laguntzen deialdi publikoa onetsi zuen, garapen bidean diren herrialdeekin lankidetza proiektuak aurrera eramateko, 2016. urtean. Hona hemen

DIRULAGUNTZEN DEIALDI PUBLIKOAREN OINARRIAK, PROBRETUTAKO HERRIALDEEKIN LANKIDETZA PROIEKTUAK GARATZEKO. 2017/2018. URTEAK.

**1.- Atarikoa.**

Berriozarko Udalak badaki giza garapeneko indizerik txikiena duten herrialdeekiko elkartasun eraginkorra sustatu behar dela, bidegabekeriak murrizten eta Milurtekoko Garapen Helburuak lortzen jarraitzeko, eta neurri zehatzak hartu behar direla, pobrezia eta bazterketa ezabatzeko.

Berriozarko Udalak 2017/2018. urteetarako kontu-sail orokorra ezarria du, 43.000,00 eurokoa, Garapenerako Lankidetza programak diruz laguntzeko. Zenbateko horretatik, %62,8 erabiliko da Garapenerako Lankidetza proiektuak diruz laguntzeko (27.000 euro); %23,25 Sahararekin senidetzeko (10.000 euro); %2,33 sentsibilizazio ekintzetarako (1.000 euro); eta %11,62 larrialdi laguntzetarako (5.000 euro).

Konpromiso horietakoren bat desagertzen bada edo ekonomikoki murrizten, erabili gabeko dirua aurrekontuko lerro honetako gainerako kontzeptuetara bideratzen ahalko da, edo alderantziz. Horren bidez lortu nahi da Berriozarko Udalak hitzartutako baliabide bakar bat ere erabilerarik gabe ez uztea, uste baita lankidetza arloan dagoen beharra handia dela.

| | |
|---|---|
| **<u>2.-Objeto de la convocatoria.</u>**<br><br>La presente convocatoria tiene como objeto:<br><br>La **<u>cofinanciación de proyectos</u>**, a través de la concesión de subvenciones, para la ejecución de los mismos en "Países empobrecidos o en vías de desarrollo" y dirigidos a promocionar el desarrollo humano local en los campos de la educación, formación, salud, igualdad, vivienda, defensa de los derechos humanos, desarrollo económico o infraestructuras que beneficien a comunidades rurales o urbanas y que impliquen la participación activa de dichas comunidades y de sus instancias representativas en su proposición, gestión y ejecución y tengan una consideración especial al impacto medioambiental y al uso sostenible de recursos naturales.<br><br>Asimismo, estos proyectos de cooperación deberán ir acompañados de una acción de sensibilización ciudadana para Berriozar concretada en la participación en el Día de Berriozar, mediante la colocación de una mesa-stand con información bilingüe (castellano y euskera) del Proyecto subvencionado. Ésta actividad se concretará con el técnico/a municipal responsable de la organización de éste día. La previsión de realización es 20 de mayo, sábado, en jornada de mañana.<br><br>Así mismo el Ayuntamiento de Berriozar se compromete a publicar en la revista Berriozar los datos más relevantes de los proyectos subvencionados, trasladando la información mediante éste método a toda la población de Berriozar. Para ello se solicitará la información bilingüe (castellano y euskera) oportuna para ésta acción.<br><br>Estas acciones no cierran la posibilidad de realizar otras que se sumen a las señaladas y que sean propuestas desde las propias ONGDs.<br><br>Los proyectos que contemplen actividades relacionados con donación o acceso a medicamentos, deberán ajustarse a las Directrices para donaciones de medicamentos establecidos en 1996 por la | **<u>2.- Deialdiaren xedea.</u>**<br><br>Ondokoa dugu deialdi honen xedea:<br><br>Diru-laguntzak emanda, “Herri pobretuetan edo garapen bidean direnetan” gauzatuko diren **proiektuak kofinantzatzea**. Proiektu horien helburua izanen da tokian tokiko giza garapena sustatzea hainbat arlotan: hezkuntza, prestakuntza, osasuna, berdintasuna, etxebizitza, giza eskubideen defentsa, garapen ekonomikoa edo herrietako edo hirietako komunitateendako azpiegiturak, komunitateek eta horien ordezkariek zuzeneko parte hartzea dutelarik proposatu, kudeatu eta gauzatzean eta, orobat, arreta berezia ematen dietelarik ingurumenaren gaineko eraginari eta baliabide naturalen erabilera iraunkorrari.<br><br>Era berean, lankidetzarako proiektuekin batera, Berriozarko herritarrak sentsibilizatzeko ekintza bat bideratu beharko da. Hain zuzen, Berriozarren Egunean parte-hartzean gauzatuko da, diruz lagundutako proiektuaren gaineko informazioa ele bitan (gaztelaniaz eta euskaraz) duen erakusmahai bat kokatuta. Jarduera hori egun hori antolatzeaz arduratzen den udal teknikariarekin zehaztu beharko da. Aurreikusita dago maiatzaren 20an egitea, larunbata, goizez.<br><br>Halaber, Berriozarko Udalak konpromisoa hartzen du diruz lagundutako proiektuen datu esanguratsuenak Berriozar aldizkarian argitara emateko. Hartara, modu horretan informazioa Berriozarko herritar guztiei helaraziko die. Horretarako, egokia den informazioa eskatuko da, ele bitan (euskaraz eta gaztelaniaz).<br><br>Hala eta guztiz ere, aipatu diren ekintzei eta garapenerako gobernuz kanpoko erakundeek beraiek proposatutakoei batuko zaizkien beste ekintza batzuk egiteko aukera ez dute ixten ekintza horiek.<br><br>Sendagaiak dohaintzan ematearekin edo jendearen eskura jartzearekin zerikusia duten jarduerak dituzten proiektuak, Osasunaren Mundu Erakundeak 1996an sendagaiak dohaintzan emateari buruz ezarritako jarraibideei lotuko zaizkio. |

| | |
|---|---|
| Organización Mundial de la Salud.<br><br>**Las áreas geográficas de actuación para la presente convocatoria son:**<br><br>Se prestará atención a los proyectos que trabajen dentro de los países y/o zonas designados por las Naciones Unidas, que se encuentren en el tramo medio o bajo IDH.<br><br>**Sectores de actuación:**<br><br>La Ayuda Oficial al Desarrollo debe estar orientada a reforzar la capacidad de actuación de las comunidades y la emancipación y autogestión de las mismas.<br><br>-Agua y saneamiento: sistemas de abastecimiento de agua y servicios e infraestructuras de saneamiento básico.<br><br>-Educación básica: acceso a la educación primaria universal, mejora de las infraestructuras educativas, alfabetización de personas adultas, capacitación para la mejora de la organización comunitaria.<br><br>-Salud básica: acciones que aborden la salud de forma integral; Programas para reducir la mortalidad infantil; Infraestructuras como hospitales etc; Programas para mejorar la salud sexual y reproductiva. Tanto en la fase de prevención como en el tratamiento de enfermedades.<br><br>-Economía solidaria, cooperativas, soberanía alimentaria, finanzas solidarias, etc., así como proyectos que busquen el fortalecimiento organizativo, la participación política y la defensa de los derechos humanos.<br><br>-Grupos especialmente vulnerables: Pueblos indígenas; minorías étnicas; población refugiada e infantil.<br><br>-Proyectos que procuren la igualdad entre hombres y mujeres.<br><br>**3.-Entidades solicitantes.**<br>Las Organizaciones, Instituciones o Asociaciones solicitantes que deseen acogerse a las subvenciones | **Jarduteko geografia eremuak hauek dira deialdi honetan:**<br><br>Arreta jarriko da Nazio Batuen Erakundeak Giza Garapenaren Indize (GGI) ertainekotzat edo baxukotzat hartzen dituen herrialde edo/eta zonaldeetan lan egiten duten proiektuetan.<br><br>**Jarduketa sektoreak:**<br><br>Garapenerako Laguntza Ofizialaren xedeak komunitateen jarduteko gaitasuna sustatzea izan behar du, baita haien emantzipazioa eta autogestioa ere.<br><br>-Ura eta saneamendua: urez hornitzeko sistemak eta oinarrizko saneamenduaren zerbitzuak eta azpiegiturak.<br><br>-Oinarrizko hezkuntza: lehen mailako hezkuntza den-denei zabaltzea, hezkuntzaren azpiegiturak hobetzea, helduak alfabetatzea eta antolaketa komunitarioa hobetzeko trebatzea<br><br>-Oinarrizko osasuna: osasuna bere osotasunean hartzen duten ekimenak; haurren heriotza tasa murrizteko programak; azpiegiturak (ospitaleak...), sexu eta ugaltze osasuna hobetzeko programak; bai aurrea hartzeko fasean, bai eritasunak artatzerakoan ere.<br><br>-Elkartasunerako ekonomia, kooperatibak, elikadura subiranotasuna, finantza solidarioak etab. baita antolamendua indartzea, politikan parte hartzea eta giza eskubideak babestea xedea duten proiektuak ere.<br><br>-Talde oso ahulak: herri indigenak, gutxiengo etnikoak, errefuxiatuak eta haurrak.<br><br>-Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea helburu duten proiektuak.<br><br>**3.-Entitate eskatzaileak.**<br>Deialdi honetako diru-laguntzak jaso nahi dituzten entitate, erakunde edo elkarteek ondoko baldintza hauek bete behar dituzte: |

| | |
|---|---|
| de la presente convocatoria, deberán reunir los siguientes requisitos:<br><br>a) Ser personas jurídicas, legalmente constituidas e inscritas en el Registro Municipal de Asociaciones de Berriozar, o en el Registro de Organizaciones No Gubernamentales de Desarrollo de la Agencia Española de Cooperación al Desarrollo, teniendo su documentación actualizada.<br><br>b) Carecer de fines de lucro.<br><br>c) Tener como fin expreso, según sus propios estatutos o en sus memorias de actividades de años anteriores, la realización de actividades relacionadas con la cooperación al desarrollo y el fomento de la solidaridad entre los pueblos.<br><br>d) Tener sede social o señalar una delegación en Navarra.<br><br>e) Ser activa en el ámbito de la Comunidad Foral de Navarra, ya sea en cuanto a la gestión de programas de cooperación, de ayuda humanitaria o a la promoción de la sensibilización sobre la situación de los países del Sur. Para ello deberán documentar las actividades realizadas en el último año en Berriozar y Navarra.<br><br>f) Disponer de la estructura suficiente para garantizar el cumplimiento de sus fines sociales y poder acreditar la experiencia y la capacidad operativas que resultan necesarias para el logro de los objetivos propuestos.<br><br>g) Estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias con la Hacienda Foral y con el Ayuntamiento de Berriozar.<br><br>h) En atención al objetivo de alcanzar al máximo número de proyectos, el tope de financiación a conceder por el Ayuntamiento de Berriozar, no podrá superar el 20% del importe a distribuir a la partida para Proyectos de Cooperación al Desarrollo.<br><br>i) En la medida de lo posible la documentación también deberá presentarse en formato digital.<br><br>**Quedan expresamente excluidas de acceder a esta convocatoria:** | a) Pertsona juridikoak izatea, legeari jarraikiz eratuak eta Berriozarko Elkarteen Udal Erregistroan edo Garapenerako Lankidetzarako Agentzia Espainiarraren Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeen Erregistroan inskribatuak egotea, eta dokumentazioa eguneraturik edukitzea.<br><br>b) Irabazi-asmorik ez izatea.<br><br>c) Estatutuetan edo aurreko urteetako jarduera memorietan adieraziko da berariazko helburu hau duela: garapenerako lankidetzarekin eta herrien arteko elkartasuna sustatzearekin ikustekoa duten jarduerak egitea.<br><br>d) Nafarroan edukitzea egoitza soziala edo delegazio bat.<br><br>e) Nafarroako Foru Komunitatean jardutea, lankidetzako programak edo giza laguntzakoak kudeatzen, edo Hegoaldeko herrialdeen egoeraren inguruko sentsibilizazioa sustatzen. Hori frogatzeko, azken urtean Berriozarren eta Nafarroan egindako jardueren dokumentazioa aurkeztuko dute..<br><br>f) Bere helburu sozialak bete ahal izateko egitura egokia izatea eta proposaturiko helburuak lortzeko behar den esperientzia eta gaitasun operatiboa frogatzea.<br><br>g) Foru Ogasunari eta Berriozarko Udalari ordaindu beharreko zergak ordainduak izatea.<br><br>h) Ahalik eta proiektu gehien laguntzeko helburuari begira, Berriozarko Udalak garapenerako lankidetza proiektuen kontu-sailean banatu beharreko zenbatekoaren %20a erabiliko du, gehienez ere, proiektu bakoitza finantzatzeko<br><br>i) Ahal den neurrian, aurkezten diren agiriak formatu digitalean ere aurkeztuko dira.<br><br>**Deialdi honetatik kanpo geratzen dira ondoko hauek:**<br><br>a) Irabazi asmoa duten enpresak edo beste entitate batzuk.<br><br>b) Berriozarko Udalaren aurreko deialdietan diru- |

| | |
|---|---|
| a) Las empresas u otras entidades con ánimo de lucro.<br>b) Las ONGDs o asociaciones subvencionadas en convocatorias anteriores del Ayuntamiento de Berriozar, que no hayan presentado informes de seguimiento en el último año (considerando para ello la fecha de conclusión de la presentación de proyectos a la presente Convocatoria), no debidamente justificado y notificado. | laguntza lortu zuten GGKE edo elkarteak, baldin eta azken urtean ez badituzte jarraipen txostenak aurkeztu (deialdi honetan proiektuak aurkezteko epea bukatzen den eguna kontuan hartuta), eta ez badute behar bezala jakinarazi eta arrazoitu. |
| c) Las ONGDs o Asociaciones que no hayan tenido actividad en Navarra durante los últimos 12 meses, considerando para ello la fecha de presentación de solicitud de financiación a la presente convocatoria. Es decir las que no documenten actividad pública en los ámbitos de la sensibilización, ayuda humanitaria o cooperación realizados en Navarra durante dicho periodo, no entendiéndose como actividad la simple aparición o publicación esporádica de artículos o entreves en los medios de comunicación. | c) Azken 12 hilabeteetan Nafarroan jardunik izan ez duten GGKE edo elkarteak (deialdi honetan diru-laguntza eskaerak aurkezteko epea bukatzen den eguna kontuan hartuta). Hau da, epe horretan Nafarroan sentsibilizazioaren, laguntza humanitarioaren edo lankidetzaren esparruan izandako jardun publikoa agirien bidez frogatzen ez dutenak; ez da jarduntzat hartzen hedabideetan agertze soila edo inoizka artikuluak edo elkarrizketak argitaratzea.. |
| d) Las ONGDs que en convocatorias de los tres años anteriores no hayan cumplido con los compromisos de los Proyectos presentados. | d) Aurreko hiru urteetako deialdietan, aurkeztutako proiektuetako konpromisoak bete ez dituzten GGKEak. |
| **4.-Proyectos y criterios de valoración.** | **4.-Proiektuak eta balorazio irizpideak.** |
| Los proyectos o actuaciones para los que se solicite subvención económica, deberán cumplir los siguientes requisitos: | Diru-laguntza eskatzeko, proiektuek edo jarduketek baldintza hauek bete behar dituzte: |
| **Requisitos Generales** | **Baldintza nagusiak** |
| a) Ser adecuados a los principios señalados en la presente convocatoria. | a) Deialdi honetan adierazitako printzipioekin bat etortzea. |
| b) Estar suficientemente desarrollada la información referida a los objetivos, resultados y actividades y recursos necesarios para la ejecución del proyecto. | b) Helburuei, emaitzei, jarduerei eta proiektua gauzatzeko behar diren baliabideei buruz informazioa nahikoa ematea. |
| c) Informar suficientemente de los objetivos y experiencia de trabajo de la entidad solicitante. | c) Eskatzen duen erakundearen helburuen eta lan esperientziaren berri ematea; behar adina informazio. |
| d) Demostrar la ONGD un amplio conocimiento del proyecto y explicar las relaciones que van a establecer con la ONGD local o la comunidad destinataria para realizar el seguimiento de la acción subvencionada. | d) GGKE horrek proiektua sakonki ezagutzen duela erakustea eta tokian tokiko GGKEarekin edo komunitate hartzailearekin ezarriko diren harremanak azaltzea, lagundutako egintzaren jarraipena egiteko.. |
| | e) Aurreikuspenen arabera, lagundutako egintzak 12 hilabete baino gehiago ez irautea, Udalaren ebazpenetik |

| | |
|---|---|
| e) Que la **duración** prevista en la ejecución de la subvención **no supere los 12 meses** a partir de la resolución municipal (una vez comprometido el pago).<br><br>f) Contar con un socio local en la zona donde se vaya a realizar el proyecto, documentando información sobre el socio local. Dicho socio podrá ser una ONGD, incluida la Delegación de la propia ONGD solicitante en el país de referencia.<br><br>g) Integrar la perspectiva de género de manera coherente, integral y transversal, en todo el proyecto. Cuánto y cómo se realiza.<br><br>h) Las ONGDs responsables de la ejecución de los proyectos subvencionados deberán presentar, en el Registro General del Ayuntamiento de Berriozar, un informe de justificación, descriptivo y financiero, del desarrollo del proyecto de finalización del ejercicio, una vez finalizado el proyecto, contando para ello con un plazo máximo de 45 días naturales desde la finalización del mismo. (según modelo que figura como Anexo número 5), salvo que concurra causa justificada que impida la presentación, en cuyo caso deberá ser comunicado por escrito al Ayuntamiento de Berriozar y valorado y aceptado por éste.<br><br>i) Cumplir con el compromiso de sensibilización en Berriozar marcado en ésta convocatoria: datos, foto y logo para Revista Berriozar y Mesa-stand Día Berriozar (Anexo 3), así como otras posibles diseñadas desde la propia ONGD.<br><br>Cada entidad solicitante podrá presentar una solicitud de cofinanciación de proyectos de desarrollo.<br><br>**Criterios de valoración**<br>Los criterios de valoración que se aplicarán a los proyectos incluidos en la presente convocatoria, serán:<br><br>-**En relación con la calidad técnica del proyecto: 38 puntos.**<br><br>Contexto General: zona, comunidad, problemática, conocimiento de la zona, Población beneficiaria del Proyecto: Directamente, indirectamente…8 Puntos.<br><br>La información sobre el proyecto a desarrollar: objetivos, recursos, necesidades, metodología, número de personas atendidas, aportaciones que realiza… 8 | hasita (ordaintzeko konpromisoa dagoenetik).<br><br>f) Proiektua egin nahi den tokian bertako bazkide bat izatea, eta horri buruzko informazioa ematea. Lankide hori GGKE bat izan ahalko da, edo GGKE eskatzaileak delako herrialdean duen delegazioa..<br><br>g) Genero ikuspuntua proiektu osoan sartzea, era koherentean, integralean eta zeharkakoan. Zenbat eta nola egiten den.<br><br>h) Diruz lagundutako proiektuak gauzatzeko ardura duten GGKEek proiektuaren garapenari buruzko txostena emanen dute, lanak justifikatzeko, deskribatzeko eta finantza egoera azaltzeko. Berriozarko Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dute, proiektua amaitutakoan, eta hura bukatu eta gehienez ere 45 egun naturaleko epea izango dute (5. eranskinean dago eredua); salbu eta aurkeztea galarazten duen arrazoi justifikatua badago. Kasu horretan ezintasun hori idatziz jakinaraziko zaio Berriozarko Udalari, eta honek baloratu eta onartu egin beharko du.<br><br>i) Deialdi honetan adierazi den Berriozarko herritarrak sentsibilizatzeko konpromisoa betetzea: datuak, argazkia eta logotipoa Berriozar aldizkarirako eta erakusmahaia Berriozarren Egunerako (3. eranskina), bai eta GGKEak berak diseinatutako beste batzuk ere.<br><br>Erakunde eskatzaile bakoitzak garapen proiektuak kofinantzatzeko eskabide bat aurkezten ahalko du.<br><br>**Balorazio irizpideak**<br>Hona hemen deialdian sartzen diren proiektuei aplikatuko zaizkien balorazio irizpideak:<br><br>-**Proiektuaren kalitate teknikoarekin zerikusia dutenak: 38 puntu**<br><br>Testuinguru orokorra: eskualdea, problemak dituen komunitatea, eskualdea ezagutzea, proiektuaren onuradun diren herritarrak, zuzenean, zeharka…: 8 puntu.<br><br>Garatu beharreko proiektuari buruzko informazioa: helburuak, baliabideak, beharrak, metodologia, |

| | |
|---|---|
| puntos.<br><br>La continuidad del proyecto y autonomía: 8 puntos<br><br>La coherencia entre los objetivos trazados y los resultados de las Actividades propuestas, utilizando metodologías similares a Modelo de Marco Lógico, donde dicho formato expecifica que cada objetivo genera una o varias actividades. Se valorará que todo el proceso sea proporcionado: 8 puntos.<br><br>Perspectiva de género en el proyecto: 6 puntos.<br><br>**-En relación con la capacidad de los actores y la calidad de sus relaciones: 15 puntos.**<br><br>La experiencia y capacidad de la contraparte local, así como su vinculación con la población beneficiaria y otras entidades de cooperación al desarrollo o instituciones locales: 5 puntos.<br><br>La participación de las personas beneficiarias en la proposición, ejecución y gestión del proyecto: 5 puntos.<br><br>Los recursos directos destinados al proyecto, 5 puntos<br><br>**-En relación con los objetivos sociales del proyecto: 32 puntos.**<br><br>• Igualdad o equidad de género: 5,5 puntos.<br>• Sostenibilidad y cuidado del Medio ambiente: 5,5 puntos.<br>• Salud y Educación básicas: 5,5 puntos.<br>• Economía solidaria, Soberanía Alimentaria, y Derechos Humanos: 5,5 puntos.<br>• Áreas geográficas de actuación IDH (se tendrá presente la zona de intervención): 4 puntos.<br>• Desarrollo del proyecto soportado en las estructuras democráticas públicas representativas: 6 puntos.<br>**-En relación al presupuesto: 15 puntos.**<br>• Coherencia en la distribución de recursos económicos según los objetivos marcados: 4 ptos.<br>• Detalle, claridad, concreción de presupuestos: | lagundutako pertsonen kopurua, egiten dituen ekarpenak: 8 puntu.<br><br>Proiektuaren jarraitutasuna eta autonomia: 8 puntu<br><br>Zehaztutako helburuen eta proposatutako jardueren emaitzen arteko koherentzia, Esparru Logikoko Ereduaren antzeko metodologiak baliatuta (bertan, formatu horrek zehazten du helburu bakoitzak jarduera bat edo zenbait eragiten dituela), eta bai prozesu guztia proportzionatua izatea ere: 8 puntu<br><br>Generoaren ikuspegia proiektuan: 6 puntu.<br><br>**-Egileen gaitasunarekin eta haien harremanen kalitatearekin zerikusia dutenak: 15 puntu.**<br><br>Tokiko kontrakoaldearen eskarmentua eta gaitasuna, bai eta bertako bizilagun onuradunekin eta tokiko garapenaren aldeko lankidetzako beste entitateekin edo erakundeekin duen lotura.<br><br>Pertsona onuradunek parte hartzea proiektua proposatu, gauzatu eta kudeatzeko lanetan: 5 puntu.<br><br>Proiektura bideratutako zuzeneko baliabideak: 5 puntu.<br><br>**-Proiektuaren gizarte helburuekin zerikusia dutenak: 32 puntu.**<br>• Genero berdintasuna edo ekitatea: 5,5 puntu.<br>• Ingurumenaren jasangarritasuna eta zaintza: 5,5 puntu<br>• Osasuna eta hezkuntza, oinarrizkoak: 5,5 puntu.<br>• Elkartasunerako ekonomia, elikadura subiranotasuna eta giza eskubideak: 5,5 puntu.<br>• Jarduteko geografia eremuak, GGI (gogoan izango da esku hartzeko eremua): 4 puntu.<br>• Egitura demokratiko publiko adierazgarrietan sostengua duen proiektuaren garapena: 6 puntu.<br><br>**-Aurrekontuari dagokionez: 15 puntu.**<br>• Baliabide ekonomikoen banaketaren koherentzia, zehaztutako helburuen arabera: 4 |

4 puntos.

- Nivel de consecución de recursos necesarios: 4 puntos.
- Porcentaje de participación económica de la ONGD y de la contraparte local: 3 puntos.

Los proyectos deberán obtener al menos 50 puntos para ser estimados. Una vez valorados, la comisión evaluadora formulará propuesta motivada de la adjudicación de la subvención a la Junta de Gobierno.

**5.-Financiación.**
Las subvenciones concedidas podrán cubrir los gastos de adquisición y transporte de materiales, suministros, equipos y otros activos productivos, siempre que se realicen en el país o zona donde se desarrolla el proyecto.

-El destino de la subvención a adquisición de terrenos o bienes inmuebles tendrá carácter excepcional y, en todo caso, queda condicionada a la presentación de toda la documentación necesaria que informe sobre su situación legal y demuestre que efectivamente pueden ser comprados. Además, la titularidad de estos bienes deberá recaer en alguna instancia comunitaria pública representativa de la población donde se ejecuta el proyecto. Esta última condición también es válida para los proyectos que consisten en la construcción de nuevos edificios.

-Deben contar con al menos un 10% de financiación procedente de fondos propios, que podrá destinarse a gastos de gestión y a gastos de personal vinculado con el proyecto (ONGD solicitante).

-Los gastos administrativos y de gestión, para los que se haya obtenido la subvención, no deben superar el 10% del presupuesto.

- Las acciones de sensibilización concretadas en mesa-stand informativo proyecto se concreta en panel informativo bilingüe y folletos informativos del proyecto, éste gasto no será superior al 5%.

-No obstante, el importe de las subvenciones concedidas, en ningún caso, podrá ser de tal cuantía que, en concurrencia con otras subvenciones o ayudas procedentes de otras organizaciones o instituciones, públicas o privadas, supere el coste total del proyecto a

puntu.

- Aurrekontuen xehetasuna, argitasuna, zehaztapena: 4 puntu.
- Beharrezkoak diren baliabideen lorpen maila: 4 puntu.
- GGKEaren eta tokian tokiko kontrakoaldearen parte-hartze ekonomikoaren portzentajea: 3 puntu.

Proiektuek 50 puntu eskuratu beharko dituzte gutxienez, aintzat hartzeko. Baloratu ondoren, diru-laguntza esleitzeko proposamen arrazoitua eginen dio ebaluazio batzordeak Gobernu Batzordeari.

**5.-5.-Finantzaketa.**
Esleitutako diru-laguntzez baliatuta materialak, hornidurak, ekipamenduak eta ekoizpenerako bestelako aktiboak eskuratzea eta garraiatzea ordaintzen ahalko da, betiere proiektua garatuko den herrialde edo eskualdean eginez gero.

--Salbuespen gisa, lurrak edo ondasun higiezinak erosteko erabiltzen ahalko da diru-laguntza; baina, betiere, legezko egoeraren berri ematen duten eta benetan erosten ahal direla frogatzen duten agiriak aurkeztea izanen da baldintza. Gainera, proiektua zein tokitan egiten den, bertako jendea ordezkatzen duen erakunde batena izanen da ondasun horien titulartasuna. Azken baldintza hori eraikin berriak egiteko proiektuen kasuan ere aplikatuko da.

-Finantzaketaren %10a gutxienez GGKE eskatzailearen beraren funtsetatik etorria izanen da. Kudeaketako gastuetarako eta lotutako langileen gastuetarako erabili ahal izango da (GGKE eskatzailea).

-Administrazio eta kudeaketa gastuetarako diru-laguntza lortzen bada, horiek ez dute aurrekontuaren %10 gainditu behar.

- Proiektuaren informazioa emateko erakusmahaian gauzatuko diren sentsibilizazio ekintzak direla-eta (ele bitako informazio ohola eta proiektuaren gaineko informaziorako eskupaperak), gastu hori ez da %5 baino handiagoa izango.

-Dena den, emandako diru-laguntzen zenbatekoak ez

| | |
|---|---|
| realizar.<br><br>**6.-Presentación de solicitudes.**<br><br>Las solicitud para poder participar en la convocatoria deberán presentarse en la Oficina de Atención Ciudadana del Ayuntamiento de Berriozar (Plaza Euskal Herria, 1), en el plazo de 30 días naturales a partir del siguiente al de la publicación de esta convocatoria en el Boletín Oficial de Navarra, hasta las 14:00 horas del último día o por cualquiera de los medios previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común (en este caso será necesario notificar la solicitud cursada al Ayuntamiento de Berriozar vía correo electrónico: berriozar@berriozar.es). En el caso de que se opte por presentar la solicitud en una oficina de Correos, se hará en sobre abierto para que la instancia sea fechada y sellada por el personal de Correos antes de ser certificada.<br><br>Asimismo, la solicitud podrá presentarse telemáticamente a través del Registro General Electrónico del Ayuntamiento de Berriozar, disponible en la Sede Electrónica del Ayuntamiento de Berriozar (www.berriozar.es). En este supuesto, la solicitud específica de participación y demás documentación que debe aportarse, podrá adjuntarse en cualquiera de los formatos previstos en el Registro General Electrónico para adjuntar archivos.<br><br>El máximo de fases de un proyecto subvencionable será de dos fases (dos convocatorias), cada una de dos años, es decir el máximo de subvención que recibirá el mismo proyecto, por fases será de cuatro años.<br><br>**<u>Para la solicitud deberá presentarse la siguiente documentación:</u>**<br><br>La solicitud a ésta convocatoria se realizará **mediante** la instancia y fichas específicas diseñadas para solicitud de Ayudas a Cooperación Internacional del Ayuntamiento de Berriozar 2016 (Anexo 1,2, 3 y 4). Una vez terminado el Proyecto se procederá a su Justificación (según anexo 5).<br><br>**Documentación a presentar:** | du inoiz gaindituko –beste erakunde edo entitate pribatu zein publikoen laguntzekin batuta– egin beharreko proiektuaren kostu osoa.<br><br>**6.-Eskabideak aurkeztea.**<br><br>Deialdian parte hartzeko eskabideak Berriozarko Udalaren Auzo Bulegoan aurkeztu beharko dira (Euskal Herria plaza, 1), deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita 30 egun naturaleko epean (azken eguneko 14:00 arteko epea izango da); edo azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 38.4 artikuluan ezarritako bideen arabera egin ahal izango da (kasu horretan, bideratutako eskabidearen berri eman beharko zaio Berriozarko Udalari helbide elektroniko honen bidez: berriozar@berriozar.es). Eskabidea posta bulego batean aurkeztea erabakitzen bada, gutun-azal ireki batean egingo da, Postako langileek eskabideari data eta zigilua jarri ahal izateko, ziurtatu aurretik.<br><br>Era berean, eskabidea telematikoki aurkeztu ahal izango da Berriozarko Udalaren Erregistro Orokor Elektronikoaren bidez, Berriozarko Udalaren egoitza elektronikoan (www.berriozar.eus). Kasu horretan, parte hartzeko berariazko eskabidea eta aurkeztu beharreko gainerako agiriak fitxategiak gehitzeko Erregistro Orokor Elektronikoan aurreikusita dauden formatu elektronikoetako edozeinetan gehitu ahal izango dira.<br><br>Diruz lagundu ahal izango den proiektu baten fase kopuru maximoa bikoa izango da, bakoitza urte bikoa, hau da, proiektu berak jasoko duen diru-laguntza maximoa, faseka, lau urtekoa izango da.<br><br>**<u>Eskaera egiteko agiri hauek aurkeztu beharko dira:</u>**<br><br>Deialdi honetarako eskaera “Berriozarko Udalaren Nazioarteko Lankidetzarako Laguntzak. 2016” eskatzeko diseinatutako berariazko fitxen eta eskabidearen bidez egingo da (1., 2., 3. eta 4. eranskinak). Behin proiektua amaituta, justifikatu egingo |

| | |
|---|---|
| -Instancia de solicitud, que figura como Anexo nº 1.<br><br>-Formulario de presentación del proyecto, tal y como figura en el Anexo número 2.<br><br>- Información de sensibilización de proyectos según petición de Ayuntamiento de Berriozar, junto fotografía y anagrama de ONGD para revista Berriozar y propuesta de panel informativo proyecto y de folleto informativo para reparto y sensibilización el Día de Berriozar. (Anexo 3). En caso de proponer más actividades de sensibilización que las exigidas deberá concretarse Proyecto de sensibilización para la población de Berriozar.<br><br>-Documentación acreditativa de las actividades realizadas por la ONGD solicitante, durante el último año en Navarra en el ámbito de la sensibilización y la educación para el desarrollo o relacionadas con la cooperación al desarrollo. (Anexo 4)<br><br>-Documentación acreditativa, mediante original o copia autorizada, de la personalidad jurídica de la entidad solicitante y de su representante:<br><br>• Estatutos.<br>• Certificado de inscripción en el Registro de Asociaciones que corresponda.<br>• Tarjeta de Identificación Fiscal.<br>• Indicación y acreditación del representante legal de la entidad, documento nacional de identidad, pasaporte o similar.<br><br>Si esta documentación obra ya en poder del Ayuntamiento de Berriozar, solo será necesario aportar una declaración responsable de la persona representante legal indicando que la misma no se ha modificado.<br><br>-Documentación acreditativa de la personalidad jurídica del socio o contraparte local (país destinatario) mediante original o copia autorizada:<br><br>• Estatutos.<br>• Acreditación de su constitución legal, según las leyes propias del país beneficiario del proyecto.<br>• Domicilio legal completo.<br>• Indicación y acreditación de la persona representante legal de la entidad, documento | da (5. eranskinaren arabera).<br><br>**Aurkeztu beharreko agiriak:**<br><br>-Eskabide eredua, 1. eranskinean dagoena.<br><br>-Proiektua aurkezteko formularioa, 2. eranskinean ageri den moduan.<br><br>- Herritarrak sentsibilizatzeko proiektuen gaineko informazioa, Berriozarko Udalaren eskaeraren arabera, argazki batekin eta GGKEaren anagramarekin batera, Berriozar aldizkarirako. Eta proiektuaren informazioa emateko oholaren eta informaziorako eskupaperaren proposamena, Berriozarren Egunean banatu eta sentsibilizatzeko (3. eranskina). Exijitutakoak baino sentsibilizazio jarduera gehiago proposatzen badira, Berriozarko herritarrak sentsibilizatzeko proiektua zehaztu beharko da.<br><br>-GGKE eskatzaileak Nafarroan azken urtean honako esparru hauetan egindako jardueren frogagiriak: garapenerako sentsibilizazioa eta hezkuntza, edo, oro har, garapenerako lankidetza. (4. eranskina).<br><br>-Erakunde eskatzailearen nortasun juridikoa eta erakundearen ordezkariarena frogatzen dituzten agiriak, jatorrizkoak edo kopia baimenduak:<br><br>• Estatutuak.<br>• Elkarteak dagokion Elkarteen Erregistroan izena emana duela erakusten duen ziurtagiria.<br>• Identifikazio Fiskaleko Txartela.<br>• Entitatearen legezko ordezkaria nor den erakusten duen ziurtagiria, Nortasun Agiri Nazionala, pasaportea edo horien gisakoa.<br><br>Berriozarko Udalak agiri horiek jada bere eskuetan baditu, nahikoa izanen da legezko ordezkariaren aitorpena, non adieraziko baita agiri horiek ez direla aldatu.<br><br>-Tokian tokiko (herrialde hartzailea) bazkidearen edo kontrakoaldearen nortasun juridikoa erakusten duen agiria, jatorrizkoa edo kopia baimendua:<br><br>• Estatutuak.<br>• Legezko eraketaren egiaztagiria, proiektua egin behar den herrialdeko legeen araberakoa. |

| | |
|---|---|
| nacional de identidad, pasaporte o similar.<br><br>-Certificación de la entidad bancaria donde se debe ingresar la subvención, en el que se haga constar el número de la cuenta y el titular de la misma. Esta certificación se deberá presentar independientemente de que haya sido presentada en años anteriores, con fecha actualizada y próxima a la del plazo de presentación de solicitudes.<br><br>-En cualquier caso, se deberá incluir un presupuesto desglosado de los gastos e ingresos expresados en euros, así como los recursos locales o propios que se aportan y las subvenciones solicitadas o concedidas correspondientes a otras instituciones o entidades.<br><br>-Mapas de localización exacta del proyecto (país, demarcación regional-departamental, provincial y municipal).<br><br>-Código del sector CRS y CAD.<br><br>-Cuanta documentación gráfica, técnica, financiera y de otra índole que se estime necesaria para la correcta comprensión del proyecto.<br><br>-Certificado de hallarse al corriente de pagos con la Hacienda Foral. El Ayuntamiento de Berriozar comprobará de oficio que la entidad solicitante se encuentra al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias con el municipio y, en su caso, procederá a la compensación de deudas.<br><br>En el caso de que las solicitudes no se acompañen de la documentación referente a la entidad solicitante señalada en este base el Ayuntamiento de Berriozar, de acuerdo con el artículo 71 de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, conferirá un plazo de 10 días, a partir del día siguiente a la notificación para presentar aquella documentación omitida o para subsanar el defecto presentado. En el caso de que no se de cumplimiento a este requerimiento en el plazo conferido, se archivará la petición y se tendrá por desistida a la peticionaria. | • Legezko helbide osoa.<br>• Entitatearen legezko ordezkaria nor den erakusten duen ziurtagiria, Nortasun Agiri Nazionala, pasaportea edo horien gisakoa.<br><br>-Diru-laguntza zer banku entitatetan sartu behar den, entitate haren ziurtagiria; han adieraziko dira kontuaren zenbakia eta titularra. Ziurtagiriak data eguneratua izan beharko du, eskabideak aurkezteko epearen ingurukoa (aurreko urteetan ere aurkeztua izan arren).<br><br>-Betiere, gastuen eta diru-sarreren aurrekontua aurkeztuko da, sailkakoa eta eurotan emana; halaber, adieraziko da proiekturako zer baliabide dauden herrialde hartan eta zer baliabide jarriko dituen entitateak, eta beste erakunde edo entitate batzuei zer diru-laguntza eskatu zaien edo haiengandik jada zer laguntza lortu den.<br><br>-Proiektua eginen den tokia zehazki erakusten duten mapak (herrialdea, eskualde edo departamentua, probintzia eta udalerria)..<br><br>-CRS sektoreko kodea eta Garapenerako Laguntza Batzordea (GLB).<br><br>-Dokumentazio grafikoa, teknikoa eta finantzen arlokoa, eta proiektuaren ezaugarriez ongi jabetzeko eskaini nahi den bestelako dokumentazioa.<br><br>-Foru Ogasunarekiko ordainketa guztiak eginda daudela adierazten duen zertifikatua. Berriozarko Udalak egiaztatuko du, ofizioz, entitate eskatzaileak bete dituela Udalarekiko dituen tributu betebeharrak eta, zorrik izanez gero, horiek konpentsatuko ditu.<br><br>Eskabideekin batera entitate eskatzaileari buruzko dokumentazioa aurkezten ez bada, oinarri honetan esandakoa, Berriozarko Udalak 10 eguneko epea utziko du, jakinarazi eta biharamunetik aitzina, falta diren agiriak aurkeztu eta egindako akatsak zuzentzeko; hori, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. artikuluarekin bat. Eskatutako hori ez bada emandako epean betetzen, eskabidea artxibatu eta eskatzaileak atzera egin duela |

7.-<u>Concesión de las subvenciones.</u>

Los proyectos serán estudiados y evaluados por una **Comisión** presidida por el Concejal de Bienestar Social y formada por las siguientes personas:

Presidente Luis Miguel Castro Moraza o persona en quien delegue Concejal de Bienestar Social Ayuntamiento

Secretario Natalia Rodriguez Aguado Secretaria Ayuntamiento Berriozar

Vocal 1 Pilar Moreno de la Chica o persona en quien delegue Concejala del Ayuntamiento

Vocal 2 Daniel Polo Múgica o persona en quien delegue Concejal del Ayuntamiento

Vocal 3 Iñaki Bernal Lumbreras o persona en quien delegue Concejal del Ayuntamiento

Vocal 4 Jose María Gainza Ordoqui Interventor Municipal

Vocal 5 Iosu Bayo Ochoa Técnico Deportivo y Bienestar Social y Salud Ayto. Berriozar

Vocal 6 Persona del Servicio Social de Base Servicio Social de Base

Vocal 7 Amaia Zalba Martínez Técnica de Igualdad del Ayto. Berriozar

Vocal 8 Persona responsable Programa Comunitario Hábitos Saludables Berriozar Programa Comunitario Hábitos Saludables Berriozar

Dicha Comisión elaborará un informe propuesta que se elevará al órgano competente para la adopción del acuerdo correspondiente.

El órgano competente adoptará el acuerdo correspondiente, antes de la finalización del año 2017.

Una vez se adopte la resolución y sea notificada se procurará durante los siguientes 30 días proceder al pago, periodo a partir del cual se habilita un máximo de 3 meses para el inicio del proyecto, contando a partir de ésta fecha con un máximo de 12 meses para su ejecución.

Una vez finalizado el proyecto se habilita un plazo de 45 días naturales para la presentación de Memoria y Justificaciones (fotocopias facturas compulsadas).

ulertuko da.

7.-<u>Diru-laguntzak ematea.</u>

Gizarte Ongizateko zinegotzia buru duen **batzorde** batek aztertu eta ebaluatuko ditu proiektuak. Hona hemen batzorde horretako kideak:

Batzordeburua: Luis Miguel Castro Moraza edo ordezkaritza ematen dion pertsona Udaleko Gizarte Ongizatearen Alorreko zinegotzia

Idazkaria. Natalia Rodriguez Aguado Berriozarko Udaleko idazkaria

1. batzordekidea Pilar Moreno de la Chica edo ordezkaritza ematen dion pertsona Udal zinegotzia

2. batzordekidea Daniel Polo Múgica edo ordezkaritza ematen dion pertsona Udal zinegotzia

3. batzordekidea Iñaki Bernal Lumbreras edo ordezkaritza ematen dion pertsona Udal zinegotzia

4. batzordekidea Jose María Gainza Ordoqui Udaleko kontu-hartzailea

5. batzordekidea Iosu Bayo Ochoa Berriozarko Udaleko Kirol eta Gizarte Ongizate eta Osasun alorretako teknikaria

6. batzordekidea Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko pertsona bat Oinarrizko Gizarte Zerbitzua

7. batzordekidea Amaia Zalba Martínez Berriozarko Udaleko berdintasun teknikaria

8. batzordekidea Berriozarko Ohitura Osasungarriak Sustatzeko Komunitate Proiektuaren arduraduna Ohitura Osasungarriak Sustatzeko Berriozarko Komunitate Proiektua

Batzorde horrek proposamen txosten bat prestatuko du, eta erabakia hartzeko eskumena duen organoari igorriko dio.

Organo eskudunak dagokion erabakia hartuko du, 2017. urtea bukatu baino lehen.

Behin erabakia hartzen eta jakinarazten denean, Udala saiatuko da hurrengo 30 egunen barnean ordaintzen. Aldi horretatik aurrera, gehienez ere, 3 hilabete izango dira proiektua hasteko, eta data horretatik aurrera, gehienez ere, 12 hilabete egongo dira gauzatzeko.

Behin proiektua amaituta 45 egun naturaleko epea

| | |
|---|---|
| La forma de concesión de la subvención será anticipada y se realizará en dos pagos, uno correspondiente al 50% en el año 2017 y el segundo correspondiente al otro 50% del año 2018 ( éste segundo pago se procurará entregar el primer trimestre del año, una vez aprovados presupuesto del ejercicio). Dicho pago se realizará en un plazo máximo de dos meses a contar desde la fecha de Resolución del órgano competente.<br><br>8.-Ejecución, control y justificación. (Anexo 5)<br><br>Las ONGDs responsables de la ejecución de los proyectos subvencionados deberán presentar, en el Registro General del Ayuntamiento de Berriozar, un informe de justificación, descriptivo y financiero, del desarrollo del proyecto de finalización del ejercicio, según se ha especificado en el punto anterior (según modelo que figura como Anexo número 5), salvo que concurra causa justificada que impida la presentación, en cuyo caso deberá ser comunicado por escrito al Ayuntamiento de Berriozar y valorado y aceptado por éste.<br><br>Una vez finalizado el proyecto se habilita un plazo de 45 días naturales para la presentación de Memoria y Justificaciones (fotocopias facturas compulsadas).<br><br>Se podrá convocar desde la Concejalía de Bienestar Social a cada una de las ONGDs financiadas para informar del desarrollo de los proyectos, y sin perjuicio de la obligación de las entidades beneficiarias prevista en la base 9. A) 3.<br><br>En los informes, deberá constar la siguiente documentación:<br><br>a) Documento acreditativo de haber enviado la cuantía de la subvención a la contraparte local.<br><br>b) Documento acreditativo, firmado por el representante legal del socio o contraparte local, de haber recibido la subvención en el país beneficiario.<br><br>c) Informe técnico sobre la ejecución del proyecto.<br><br>d) Informe económico con una relación de gastos e ingresos. | egongo da txostena eta justifikazioak aurkezteko (fakturen kopia egiaztatuak).<br><br>Aldez aurretik emanen da diru-laguntza, bi ordainketetan, bata %50ari dagokiona 2017. urtean, eta bigarrena, beste %50ari dagokiona 2018an (bigarren ordainketa hau urteko aurrekontuak onartu ostean, urteko lehen hiru hilekoan egiten saiatuko da). Ordainketa hori bi hilabeteko epean egingo da, gehienez ere, organo eskudunak ebazpena ematen duen egunetik zenbatzen hasita.<br><br>8.-Proiektua gauzatzea, kontrola eta justifikazioa. (5. eranskina)<br><br>Diruz lagundutako proiektuak gauzatzeko ardura duten GGKEek proiektuaren garapenari buruzko txostena emanen dute, lanak justifikatzeko, deskribatzeko eta finantza egoera azaltzeko. Berriozarko Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dute, ekitaldia amaitutakoan, aurreko puntuan zehaztu denaren arabera (5. eranskinean dago eredua); salbu eta aurkeztea galarazten duen arrazoi justifikatua badago. Kasu horretan ezintasun hori idatziz jakinaraziko zaio Berriozarko Udalari, eta honek baloratu eta onartu egin beharko du.<br><br>Behin proiektua amaituta 45 egun naturaleko epea egongo da txostena eta justifikazioak aurkezteko (fakturen kopia egiaztatuak).<br><br>Gizarte Ongizateko Zinegotzigoak GGKE bakoitzari deitzen ahalko dio proiektuen gauzatzearen berri eman dezan, deusetan ukatu gabe 9. A) 3 oinarrian erakunde onuradunei ezartzen zaien eginbeharra.<br><br>Txostenetan, agiri hauek egongo dira:<br><br>a) Diru-laguntza tokian tokiko kontrakoaldeari bidali zaiola erakusten duen agiria.<br><br>b) Tokian tokiko bazkide edo kontrakoaldearen legezko ordezkariak sinatutako egiaztagiria, diru-laguntza herrialde onuradunean jaso dutela frogatzen duena.<br><br>c) Proiektua gauzatzeari buruzko txosten teknikoa.<br><br>d) Txosten ekonomikoa, gastuen eta diru-sarreren |

| | |
|---|---|
| Los proyectos subvencionados podrán ser objeto de control y seguimiento en su ejecución en cualquier parte de su desarrollo, debiendo facilitar las Organizaciones responsables de su realización cualquier información o documentación que se les requiera desde el Ayuntamiento de Berriozar. | zerrenda barne. |
| | Diru-laguntza lortu duten proiektuen kontrola eta jarraipena egiten ahalko da, haiek gauzatzeko edozein fasetan, eta Berriozarko Udalak eskatutako informazio eta agiri guztiak eman beharko dituzte proiektuen ardura duten erakundeek. |
| Por su parte, el Ayuntamiento, a través de la Concejalía de Bienestar Social, y una vez recibida dicha información, realizará un informe resumen sobre la ejecución de los proyectos y la imputación de la subvención a los mismos. | Informazio hori jaso ondoren, Udalak –Gizarte Ongizateko Zinegotzigoa dela medio– laburpen txostena prestatuko du, proiektuak gauzatzeari buruz eta horiei diru-laguntzak emateari buruz. |
| 9.-**Contenido de la relación jurídica entre las organizaciones beneficiarias y la administración concedente.** | **9.-Diru-laguntza ematen duen administrazioaren eta erakunde onuradunen arteko harreman juridikoaren edukia.** |
| A) Obligaciones de la ONG beneficiaria. | A) GKE onuradunaren betebeharrak. |
| 1.-Ejecutar el proyecto en los términos expresados en su solicitud, debiendo iniciarse en el plazo máximo de los 3 meses siguientes a la percepción de la subvención, salvo que resulte imposible debido a circunstancias excepcionales o de fuerza mayor, que deberán ser justificadas. | 1.-Eskabidean adierazi bezala gauzatzea proiektua. Diru-laguntza jaso ondorengo 3 hilabeteetan hasiko da proiektua, ez beranduago, ezinezkoa ez bada, behintzat, arrazoi bereziak edo ezinbesteko arrazoiak direla medio; inguruabar horiek justifikatu egin beharko dira. |
